

EGUN BAT NAIAREN FAMILIAREKIN

Hau Naiaren familia da: aita, bere anaia Markel eta amona. Laurak elkarrekin bizi dira.



Gaur, Naia urduri baina pozik altxatu da, herrian alzhemerraren ikerketaren aldeko lasterketa antolatu dute. Bere amonak alzhemerra du eta ilusio handiz parte hartuko du lasterketa honetan amona asko maite duelako.

1. Amonak duen gaixotasuna, alzhemerra, nerbio-sistemako gaitza da. Zeri eragiten dio bereziki alzhemerrak?

- A. Mugimenduari.
- B. Pertsonaren izaerari.
- C. Memoriari.
- D. Komunikatzeko gaitasunari.

2. Aitak esan dio alzhemerraz gain, beste hainbat gaixotasunek eragina dutela nerbio sisteman. Gure nerbio-sistema zelula espezializatu batzuk osatzen dute. Zeintzuk dira zelula hauek?

- A. Neuronak.
- B. Nerbioak.
- C. Plaketak.
- D. Axoiak.

3. Adierazi X batez ondorengo esaldiak egia (E) ala gezurra (G) diren:


	EGIA	GEZURRA
Dendritak nerbio-sistemaren zelulen parte dira.		
Nerbio siistema zentrala, entzefaloak eta nerbioek osatzen dute.		
Bizkarrezur muina bizkarrezurraen kanpoaldean dago eta informazioa garraiatzen du.		
“Nahiagabeko erantzunak” edo “erreflexuak” pentsatu gabe egiten ditugun horiek dira		

4. Kirola egin ondoren gure gorputzak energia berreskuratu behar du. Lasterketa amaitu duenean, Naiak fruta ale bat jan du. Orduan, digestio aparatua martxan jarri da. Zein da digestio aparatua funtzio nagusia?

.....

.....

5. Naiak aurtan ikastetxean ikasitakoa gogoratzen du: “Digestio aparatua digestio hodiak eta digestio guruinek osatzen dute”. Lagundu Naia eta idatzi ondorengo zutabeen atal bakoitzari dagokion zenbakia.



6. Markelek lasterketan parte hartzen ari zela orkatilan mina hartu du. Zorionez, ez da ezer larririk izan eta ez da lesionatu. Medikuek aholku batzuk eman dizkio hezurak eta artikulazioak garatu eta zaintzeko.

Adierazi X batez hurrengo aholkuak egia (E) ala gezurra (G) diren:

	EGIA	GEZURRA
Aldizka ariketa fisikoa egitea ariketei pixkana hasiera eta bukaera emanez		
Aulkian jarrera tente mantentzea bizkarra ailkiaren bizkarraldearen kontra jarrita		
Egunero atsedeen luze bat hartzea, 14 eta 16 ordu bitartean lo egitea.		
Eskolako motxila sorbalda bakarretik zintzilik edo soinean gurutzatua eramatea		